

Animalistak

Joxean AGIRRE

Ez ginen animalistak izango, baina konbentzituta geunden abere mota bakoitzak bere adimen mota zuela eta norbanako bakoitzak bere izaera, baita konplexutasun handiko psikologia bat ere, bere umetako trauma, maitasun zapuztu eta bizipen lazgarriekin eta batzuen kasuan, behi eta astoez ari naiz, horiek ezagutzen genituelako gertuenetik, baita mania pila bat ere, baina eroapenez eramaten genituen, zeren eta zer da izaera bat manien batura bat baizik, pentsatzen baikenuen.

Charles Waterton naturalistari buruz irakurri nuen txoriak hobeto ezagutzeko zuhaitzetara igota ematen zituela hilabeteak eta ez ninduen horrek askorik harritu, Pello Zabala bat irudika bai-

nezakeen antzeko gauzak egiten gaztetan. Irakurri nuenean, ordea, orangutanak ezagutzeko haiekin bizitzera joan zela eta orangutan eme bat lehen egunetik seko maitemindu zitzaiola eta besarkadak ematen zizkiola etengabe, gizonak erruki pixka bat eman zidan.

Entzuten dituzu txorien txorrotxioak eta, antropozentrismoak horretara bultzatuta, pentsa zenezake haien artean ere egongo direla batzuk besteak baino hobeak eta kantuan ari dena izan litekeela Andoni Egaña edo Maialen Lujanbio bat. Entzuten duzu astoaren arrantza desafinatua eta pentsa zenezake asteme gazte baten belarrientzat izan litekeela hori kantu liriko bat, Pavarottiren aria bat esate baterako. Entzuten du ume batek kilker

bat kantuan eta irudika dezake, ipuinetan ikusi duelako, intsektu hori biolina jotzen, Ara Malikian baten antzera.

Gaiak liburu bat egiteko ematen du. Nik idatziko banu, burutazio txoro eta xeblez betea aterako litzateke. Baina, zorionez, Mikel Torres EHUKo irakasleak idatzi du eta zentzuzkoa, serioa eta sakona atera zaio. Izena ere halakoa du: “Poder animal. Capacidades y derechos de los animales”.

Datorren astean urteko lehen sagardotegia dugu eta badakit txuletaren ordua iristen denean liburuko pasarte batzuekin gogoratuko naizela, abereen sentitzeko gaitasunaz, kontzientziaz eta eskubideez hitz egiten dutenekin, esate baterako. Eskerrak adinak kontraesanekin bizitzen erakutsi digun. •

Titiburuak

Amagoia MUJIKATELLERIA

Espainiako gizarte gaietako ministroa da Ione Belarra. Eta nonbait jendarte espainola gaitzetatik eta buruhausteetatik libre da, bestela ez luke hainbesteko denbora eta energia gastatuko Belarraren titiburuei buruz hizketan. Ekitaldi ofizial batera titi-zorrorik gabe joan da eta titiburuak nabarmendu zaizkio jertsearen azpitik. Eta hori eskandalagarri gertatu zaio askori, gizon zein emakume. Ez omen da itxura, hori kuxidadea ministro batentzat. Gauza jakina da emakume errespetagarriek neurritsuak izan behar dutela hizketan, janzkeran, egoteko maneran... eta leize espainoletatik zaharkizaleek jartzen omen dute neurria. Ederki gaude.

Ez naute asko kezkatzen fatxa horien esanek. Harritzeko gaitasuna apalduta daukat horiei begira jartzen naizenean. Are gehiago, etengabe gogorarazten digute nondik gatozen eta zer den eraitsi behar dena. Egiteko ditugun etxeko-lanak gogorarazten dizkigun aplikazio bat bezalakoak dira.

Kezkatzen nauena da, inongo haitzulotakoa izan gabe, gertuago ditugun batzuen isiltasun deserosoa. Pentsatuko dute igual ez zela jantzi egokiena ekitaldi ofizial baterako, ia zein nezesidade zeukan horrelako iskanbila sortzeko, titi-zorroa jantzi eta bakea, ez dela polita titiburuak horrela nabarmentzea, atentzioa deitzea gustatuko zaiola igual... Pentsatuko dute eta agian ez dute esan-

go, baina hor izango da murmurioa. Izan ere, nahiko lan daukagu murmurioetik aldentzen, jendarte matxista batean haziak eta heziak izan direnen barruko ahotsa itzaltzen.

Niri sekulako poza ematen dit egungo neska gazteak titi-zorrorik gabe ikus-teak, erdizka depilatuak edo depilatu gabe, gogoak ematen diena jantzita, agindu estetikoetatik aske. Ez dira asko, beste mordo bat bizi baita instagrameko gezurretako bere argazki horren antza izan nahian seko itota. Baina bestelakoak ere badira. Goratu ditzagun eta miretsi, aurreko belaunaldietako asko baino askeagoak izateko apustua egin dutelako. Askeago eta, ondorioz, zoriontsuago seguru. •